

URTEKO PLANA 2023

eLankidetz

Gasteiz, 2023ko apirila
(otsailean onartutako planaren aldaketa)

Sarrera

2022ko abenduaren 20an, Gobernu Kontseiluak onartu zuen beste hiru urtez luzatzea (2022-2024) 2018-2021 aldirako IV. Gida Plana. Luzapen-dokumentu horretan ezarritakoa zehazten du urteko plan honek.

2023ko mugarri nagusietako bat izango da Gobernu Kontseiluan onartzea Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen aurreproiektua, eta, ondoren, Eusko Legebiltzarrerara bidaltzea.

Araudia berrikusteko prozesu horrek ondorioak ditu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (aurrerantzean, eLankidetz) zereginetan, proposatzen dituen aldaketetarako prestatzen joan behar baitugu. Dokumentu honetan jaso den bezala, hausnarketa-prozesu bat hasiko dugu lankidetz-politikaren helburuei eta politika hori aurrera eramateko beharrezko tresnei buruz, eta plangintza batzuen indarraldia luzatzea egokia ote den baloratuko dugu, etorkizuneko legera eta haren ondoriozko urte anitzeko plangintza berrira egokitzeko. Era berean, erantzunkidetasunaren aldeko apustuan aurrera egiten jarraitzeko, eragile publikoek eta sozialek lankidetz-politikan duten inplikazioa zabaltzen jarraituko dugu, tokiko garapeneraren eta garapen globalaren zerbitzura jartzeko ahalik eta gaitasun eta jakintza gehien.

2018-2024 aldirako IV. Gida Planaren ardatzen eta elementuen arabera antolatu da urteko plan hau, eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzari buruzko atal bat gehitu zaie haiei, IV. Gida Planaren herritartasun kritikoaren ikuspegiarekin lotua.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu 2018-2024 aldirako IV. Gida Planean eta eLankidetzaren gainerako dokumentu estrategikoetan hartutako konpromisoak erantzuten diela urteko plan honek: (H)ABIAN 2030 gizarte eraldaketarako euskal hezkuntza estrategia, 2018-2023 aldirako Ekintza Humanitarioko Estrategia, 2019-2022 aldirako I. Komunikazio Plana –gaur egun berrikuspen-prozesuan dago–, 2021-2024 aldirako Genero Berdintasunaren aldeko I. Plana eta 2020-2023 aldirako pertsonak, erakundeak, komunitateak eta giza eskubideen defentsarako sareak babesteko Ibilbide-orria. Jarraian, plangintza horien esparruko ekintza garrantzitsuenak aipatuko ditugu.

1. Garapen jasangarrirako politiken koherentzia

2023an, garapenerako politiken koherentzia bultzatzen jarraitu nahi dugu Eusko Jaurlaritzaren barruan. Horretarako, besteak beste, garapen jasangarrirako politiken koherentziari buruzko lan-esparruari helduko diogu berriro Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren esparruan; Eusko Jaurlaritzako sailak lankidetzako ekimenetan sartzan jarraituko dugu, bai eta koherentziaren arloko prestakuntza-ekintzak bultzatzen ere; eta, gainera, erakundeen arteko lana indartuko dugu, baterako ekimen berriak identifikatuta.

Euskaditik haratago, jarraituko dugu Estatuko eta Europako lankidetzaren deszentralizatuko beste eragile batzuekin batera ekimenak eta hausnarketarako guneak bultzatzen eta sakontzen.

Arkitekturaren garapena

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Eusko Jaurlaritzaren barruan garapen jasangarrirako politiken koherentziarekin lotutako ekimenen jarraipena egitea	urtean zehar
Enpresarekin eta giza eskubideekin lotutako eta enpresak nazioartekotzeko ekimenen jarraipena eta balioestea, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzarekin eta Basque Trade and Investment agenziarekin batera	urtean zehar
Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiarekin koordinatzea	urtean zehar
Gaiaren inguruko prestakuntza-eskaintza (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluko lantaldeko kideentzat, Gobernuako goi-kargudunentzat eta abarrentzat). Hogeita bost lagun trebatuak	urtean zehar

Eusko Jaurlaritzako sailek parte hartzea beren jarduera-eremuekin zerikusia duten lankidetzaren ekimenetan.

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Eusko Jaurlaritzako pertsonen parte hartzea ezagutzaren mugikortasun-esperientzietan. Hogeita hamabost lagun, Eusko Jaurlaritzako bost zuzendaritza, organismo eta erakundetakoak	urtean zehar
Jarduerak bultzatzea, Eusko Jaurlaritzako beste zuzendaritza, erakunde edo organismo batzuekin koordinatuta. Hamar jarduera	urtean zehar

<p>2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren kanpo-dimentsioan laguntzea. <i>Osasun Globala (baterako jarduera Osasun Sailaren, Osakidetzaren, eLankidetzaren eta AIDaren artean Ginea Bissaun): ekimena garatzea</i></p> <p><i>Hezkuntzaren Auzolana: irakaskuntza-ikaskuntza esperientziak trukitzea Malawiko eta Euskadiko lehen hezkuntzako eskolen artean (UNICEF)</i></p> <p><i>Hirugarren ekimen bat aztertzea</i></p>	<p>urtean zehar</p> <p>lehen seihilekoan</p> <p>urtean zehar</p>
--	--

Erakundeen artean artikulazio eta koordinazio handiagoa

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
<p>Abian dauden erakunde arteko ekimenak beste euskal administrazio publiko batzuekin. <i>Euskal Lankidetzaren Publikoaren ataria Eguneratzea eta urteko memoria Ekimenen ebaluazioak sartzea</i></p> <p><i>AUZO(LAN)KIDEAK ELKARREKIN: Ura eta saneamendua. AKUAL programaren bigarren edizioaren balorazioa eta hirugarren edizioaren aurre-identifikazioa</i></p> <p><i>Erakunde arteko ekimena St. Louisen (Senegal): ekimen pilotua</i></p>	<p>hirugarren hiruhilekoan urtean zehar</p> <p>bigarren seihilekoan</p> <p>urtean zehar</p>
<p>Beste autonomia-erkidego batzuetako lankidetzaren deszentralizatuko eragileekiko lankidetzaren sustatzea eta sendotzea. <i>Nazioarteko topaketa Guatemalan desagertutako pertsonak bilatzeko auzitegi-zientziei eta memoria historikoari buruz</i></p>	<p>martxoan</p>
<p><i>NATAXIK – memoria dokumentalaren hedapena</i></p>	<p>lehen seihilekoan</p>
<p><i>Koordinazioa beste autonomia-erkidego batzuekin</i></p>	<p>urtean zehar</p>
<p>Trukea Europako lankidetzaren deszentralizatuko eragileekin, PLATFORMAren koordinatuta. Bi jardunaldi</p>	<p>urtean zehar</p>

2. Eremu estrategikoak

Eremu estrategikoekin lan egiteko modu berriak bultzatu nahi izan ditugu era askotako eragileekin, erronka komunak identifikatzeko eta erantzun integralagoak eta elkarrizketatuagoak lortzeko bidean aurrera egiteko. 2023an, ekintzak aurreikusi ditugu IV. Gida Planean identifikatutako bi eremu estrategikoetan, eta, horrez gain, esperientzia horri buruzko hausnarketa-prozesuari ekingo diogu.

Bi eremu estrategiko abian jartzea

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN: Cauca haranaren iparraldeko (Kolonbia) ekimenaren bigarren fasea zehaztu eta abian jartzea	lehen seihilekoan
AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN: Mesa (Kolonbia). Espazioaren eta haren helburuen ebaluazioa	lehen seihilekoan
AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN: emakumeek bake-prozesuetan duten parte-hartzeari buruzko hausnarketarako eta elkartrukerako gunea sortzea	bigarren seihilekoan
AUZO(LAN)KIDEAK EKONOMIAN: ekonomia sozial eta solidarioan esperientziak trukatzeko gunek ¹	urtean zehar

Eremu estrategikoetako esperientziaren ebaluazioa

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Eremu estrategikoei buruzko hausnarketa-prozesua <i>Prozesuaren definizioa</i> <i>Beste esperientzia batzuk ezagutzea</i>	lehen seihilekoan bigarren seihilekoan

3. Lokala-globala

Ardatz honetan, 2023rako mugarri nagusia da ikuspegi lokal-globalari buruz hausnartzea, ikuspegiaren ulermena eta irismena zein diren zehazteko eLankidetzarako. Hasierako prozesu horren ondoren, ikuspegiaren aplikazioan sakontzeko eta aurrera egiteko libilbide-orria egitea komeni ote den baloratuko dugu.

Ikuspegi lokal-globalean sakontzea

¹ Ekonomia sozial eta solidarioan Euskadiko eta Hegoaldeko eragileekin batera egindako ekimenen esparruan.

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Ikuspegi lokal-globalaren esparrua eta irismena zehaztea <i>Ikuspegiari buruzko barne-hausnarketa</i> <i>Posizionamendu-dokumentua</i> <i>Hala badagokio, Ibilbide-orria</i>	lehen seihilekoan bigarren seihilekoan bigarren seihilekoan

4. Giza eskubideak

Urtean zehar, babesaren arloan egiten dugun lanarekin jarraituko dugu, 2020-2023 aldirako pertsonak, erakundeak, komunitateak eta giza eskubideen defentsarako sareak babesteko Ibilbide-orriarekin lotuta. Bultzada berezia emango diegu ikaskuntza-ildoari eta babes-mailako komunikazio-ekintzei, eta, gainera, babesteko Ibilbide-orria bera berrikusiko eta eguneratuko dugu.

Babeserako lan espezifikoaren osagarri, barne-hausnarketako prozesu orokorragoa bultzatuko dugu giza eskubideen arloan, eLankidetzak arlo horretan duen lan-esparrua definitzeko.

Babesa helburu duten ekimenak lehenestea

Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak, komunitateak, erakundeak eta sareak babesteko ekimenetan laguntzeko gordeko dugu emandako funtsen % 4. Gainera:

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Afrikari eta babesari buruzko jardunaldiak	bigarren seihilekoan

Babesaren arloko koordinazio- eta ikaskuntza-guneak

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Babesteko ikaskuntza-ildoak: jardunbide egokiak identifikatzeko babes-ekimenak aztertzea	lehen seihilekoan

eLankidetzak duen babesteko eginkizuna indartzea

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programa <i>2023ko ediziorako akonpainamendua</i> <i>Programaren diagnostiko-prozesua amaitzea</i> <i>eta hobekuntzak ezartzea</i>	urtean zehar bigarren seihilekoan

Giza eskubideen defendatzaileak babesteko
 komunikazio-protokoloa
Protokoloa hedatzea
Babesarekin loturiko komunikazio-ekintzak

bigarren seihilekoan
 urtean zehar

2020-2023 aldirako Babeseko Ibilbide-orria
Barne-ebaluazioa
Beste aldi baterako eguneratzea

hirugarren hiruhilekoa
 laugarren hiruhilekoa

eLankidetzak giza eskubideen arloan duen lan-esparrua finkatzea

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
eLankidetzak giza eskubideen arloan duen lan-esparruari buruzko hausnarketa <i>Barne-prozesua</i> <i>Posizionamendu-dokumentua</i>	hirugarren hiruhilekoa laugarren hiruhilekoa

5. Generoa

2023an, besteak beste, bultzatu egingo ditugu emakumeen ahalduntzearen, genero-parekidetasunaren aldeko antolamendu-aldaketaren eta sexu- eta genero-aniztasunaren ildoen ikaskuntza eta hausnarketa. Gainera, aurrera egingo dugu Genero Berdintasunaren aldeko Plana (2021-2024) ezartzeko bidean.

Emakumeak ahalduntzeko zeharkako ikuspegiaren eta ikuspegi sektorialaren ezagutzan eta aplikazioan sakontzea

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
2018tik lagundutako genero-parekidetasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sistematizatzea. Laburpen-dokumentua	bigarren seihilekoan
Genero-parekidetasunaren aldeko antolamendu-kultura aldatzearekin lotutako prestakuntzarako eta esperientziak trukatzeko jardunaldia (VIII. Jardunaldiak)	laugarren hiruhilekoan
Emakumeen ahalduntzean ikasteko ildoak: jardunbide egokiak identifikatzeko mapaketa	bigarren seihilekoan

Emakumeak ahalduntzeko ekimenak lehenestea eta erakunde feministei laguntzea.

Emandako funtsen % 20 emakumeak ahalduntzea helburu duten ekimenetarako gordeko dugu, eta % 10 Hegoaldeko erakunde feministentzat.

Sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia txertatzea

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia txertatzeari buruzko hausnarketa. Posizionamendu-dokumentua	lehen seihilekoan
Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko esperientzia pilotua zehaztea	urtean zehar

eLankidetzaren zeharkakotasun-estrategia indartzea

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Sexu-jazarpenaren eta generoagatiko jazarpenaren protokoloa eta prebentzio-programa definitzea eta abian jartzea	lehen seihilekoan

6. Afrika

2023rako mugarri nagusia da Afrikan egiten dugun lana indartzeko Ibilbide-orria zehaztea. Dokumentu horrek datozen urteetarako lan-ildoak eta ekintza espezifikoak zehaztuko baditu ere, 2023an honako hauen alde egiten jarraituko dugu: (i) Afrikan ekimenak onartzeko neurri positiboak eustea; (ii) gaitasunak indartzen jarraitzea; (iii) sentsibilizazio-ekintzekin jarraitzea, eta (iv) bakearen, hezkuntzaren, teknologiaren eta ingurumenaren arloetan ekimen propioak bultzatzen jarraitzea.

Afrikaren lehentasun geografikoa

Emandako funtsen % 25 Afrikan egiten diren ekimenetarako gordeko dugu. Horretarako, tresna bakoitzeko funts espezifikoak erreserbatzea aurreikusi dugu (ikus xehetasunak 13. atalean "Dirulaguntzen kudeaketa").

Afrikan oinarritutako eta Afrikako eragileekin egindako ekimenak sustatzea

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Afrikan egiten dugun lana sustatzeko Ibilbide-orria <i>Dokumentuen eta datuen analisia</i> <i>Ibilbide-orria zehaztea</i>	lehen seihilekoan bigarren seihilekoan

Eragileak indartzeko topalekuak eta ikaskuntza-guneak sortzea.

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Gaitasunak indartzea <i>Euskadin eragileak prestatzea</i> <i>Tokiko erakundeak prestatzea Senegalen,</i> <i>Kongoko Errepublika Demokratikoan eta</i> <i>Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoan</i>	lehen seihilekoan urtean zehar

Afrikako migratzaileen elkarteetara hurbiltzea,
 topaketak egitea eta ekimenak aurrera eramatea
Afrikaren Eguna
Afrikaldia

maiatzaren 25ean
 hirugarren hiruhilekoan

eLankidetzaren eginkizuna indartzea

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Ekimen propioak garatzea <i>Osasun Globala (baterako ekimena Osasun Sailaren, Osakidetzaren, eLankidetzaren eta AIDAREN artean Ginea Bissaun): ekimena garatzea</i>	urtean zehar
<i>Erakunde arteko ekimena St. Louisen (Senegal): ekimen pilotua</i>	urtean zehar
AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN: emakumeek bake-prozesuetan duten parte-hartzeari buruzko hausnarketarako eta elkartrukerako gunea sortzea	bigarren seihilekoan
AUZO(LAN)KIDEAK HEZKUNTZAN <i>Irakaskuntza-ikaskuntza esperientziak trukatzea Malawiko eta Euskadiko lehen hezkuntzako eskolen artean (UNICEF)</i>	lehen seihilekoan
<i>Afrikari buruzko prestakuntza-proposamena aztertzea unibertsitate-eremuan</i>	urtean zehar
AUZO(LAN)KIDEAK TEKNOLOGIAN <i>Energia berriztagarrien arloko trukea (Barefoot College International)</i>	lehen hiruhilekoan
AUZO(LAN)KIDEAK INGURUMENEAN <i>Esperientziak trukatzea Afrikako eta Euskadiko eragileen artean (INADES)</i>	bigarren seihilekoan

7. Gatazkak eta bestelako indarkeria-egoerak

2023an jarraituko dugu 2018-2023 aldirako Ekintza Humanitarioko Estrategiaren lau ardatzak ezartzen: (i) herritarrak babestea; (ii) erakundeak indartzea; (iii) herritarrak informatzea eta sentsibilizatzea; eta (iv) eLankidetzaren zeregina eta beste eragile batzuekiko koordinazioa indartzea. Gainera, dokumentu estrategiko hori ebaluatzeko barne-prozesu bat egingo dugu, eta luzatzea egokia ote den aztertuko dugu; horrek eguneratze-ariketa bat eskatuko luke.

Gatazketan eta bestelako indarkeria-egoeretan oinarritutako ekimenak lehenestea.

Emandako funtsen % 9 gatazketan eta bestelako indarkeria-egoeretan oinarritutako ekimenei laguntzeko gordeko dugu.

Erakunde humanitarioak indartzea

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Prestakuntzarako eta esperientziak trukatzeko gunea (PETG) garatzea	bigarren lauhilekoan
2018-2022an egindako PETGen eta ikaskuntzen aplikazioa baloratzea. Laburpen-dokumentua	bigarren seihilekoan
Testuinguru humanitarioko (testuinguru definitzarren) jardueri buruzko ebaluazioa	urtean zehar

Kontuak ematea eta sentsibilizatzea

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Parte hartzeko eta kontuak emateko tresnaren jarraipena egiteko jarduera	bigarren seihilekoan
eLankidetzak sustatutako ekintza humanitarioaren arloko jardueri buruz Euskadin sentsibilizatzeko eta kontuak emateko komunikazio-produktua	bigarren seihilekoan

eLankidetzaren zeregina eta beste eragile batzuekiko koordinazioa indartzea

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Ikaskuntzak sozializatzeko azterlanetan, espazioetan eta jardunaldietan parte hartzea	dagokionaren arabera
START programa Osakidetzarekin <i>Hedapena</i> <i>Esperientziaren balorazioa</i>	hala dagokionean bigarren seihilekoan
2018-2023 aldirako Ekintza Humanitarioko Estrategia <i>Barne-ebaluazioa</i> <i>Beste aldi baterako eguneratzea</i>	hirugarren hiruhilekoan laugarren hiruhilekoan

8. Herritartasun kritikoa

Gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren atal hau, herritartasun kritikoa ikuspegiarekin lotuta, ez badago ere berriaz jasota IV. Gida Planean, lan-esparru horretako ekintza nagusiak zehaztuko ditugu ondoren. Bultzatzen dugun gizarte-eraldaketarako hezkuntzako lana (H)ABIAN 2030en esparruan egiten da, gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren euskal estrategiaren baitan.

Euskadin ekintzak lehenestea

Emandako funtsen % 13 ekimenak eta ekintzak Euskadin egiteko gordeko dugu².

Gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren arloko ekintzak

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
(H)ABIAN 2030 <i>Adierazleen eta jarraipen-tresnen sistema zehaztea</i> AUZO(LAN)KIDEAK KOMUNIKAZIOAN: (H)ABIAN 2030 webgunea garatzea	urtean zehar lehen seihilekoan
VI. Heziketa Topaketa, ingurumen-hezkuntzari buruzkoa	lehen seihilekoan
Gizarte-eraldaketarako Hezkuntzari buruzko VI. Jardunaldiak, ikaskuntza-kulturari buruzkoak	lehen hiruhilekoan
Herritartasun kritikoa ikasteko ildoak: ekimenak ixteko guneen ondorioen dokumentua (K3)	bigarren seihilekoan
Hezkidetzaren proposamenen ebaluazioa: lizitazioa eta ebaluazioaren garapena	urtean zehar
Kulturarteko prozesuak eta prozesu dekolonialak ebaluatzea: erreferentzia-terminoak egitea	bigarren seihilekoan

9. Ezagutza eta ikaskuntza sortzea

IV. Gida Planak ezagutza eta ikaskuntza sortzearen aldeko apustua egiten du, gure jardunbideak aldatzen eta aberasten laguntzeko. Begirada horrek zeharka gurutzatzen du eLankidetzaren eginkizun guztia, eta, bereziki, lehentasunezko ardatzak. Horretarako, 2023an hiru eremutan bultzatuko ditugu ekintzak: (i) ezagutza eta ikaskuntza sortzea; (ii) ebaluazio-prozesuak bultzatzea; eta (iii) ikerketa eta azterlanak sustatzea garapenerako lankidetzaren arloan.

Ezagutza kudeatzeko estrategia diseinatzea

² Ehuneko hori Euskadin gauzatzen diren ekintzei dagokie, hau da, gizarte eraldatzeko hezkuntzarako ekintzak, sektorea indartzekoak, garapenerako politiken koherentziarako, ikerketarako, ebaluaziorako eta abarretako ekintzak. Hala ere, atal honetan sartu da, Euskadin ekimen-bolumen handiena gizarte-eraldaketarako hezkuntzan egiten baita.

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Ikasteko eta ezagutza sortzeko orientabide orokorrak eta mekanismoak prestatzea ³	lehen seihilekoan
Ezagutzaren eta ikaskuntzen transferentzia <i>Egindako ikerketak eta ebaluazioak sozializatzea. Lau sozializazio</i>	urtean zehar
<i>Jardunbide egokiak sozializatzeko, esperientziak trukatzeko eta prestakuntzarako guneak (ardatz estrategikoetan, zeharkako lehentasunetan eta lehentasun geografikoetan oinarrituta). Zortzi gune</i>	urtean zehar
<i>Hitzaldietan, jardunaldietan eta azterketetan parte hartzea eLankidetzaren esperientzia eta euskal lankidetzaren sozializatzeko. Hamar parte-hartze</i>	urtean zehar

Ebaluazio-plana diseinatzea

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Finantzatutako ebaluazio-prozesuetarako irizpide eta estandar partekatuak definitzea	bigarren seihilekoan
2023an aurreikusitako ebaluazio-prozesuen lizitazioak/kontratazioak <i>Proiektuen tresna</i>	lehen lauhilekoan
<i>Euskal lankidetzak Habana Hiriko Historialariaren Bulegoarekin duen lotura sistematizatzea</i>	lehen lauhilekoan
<i>Hezkidetzaren proposamenen ebaluazioa</i>	lehen lauhilekoan
<i>Testuinguru humanitarioko (testuingurua definitzearen) jardueren buruzko ebaluazioa</i>	lehen lauhilekoan

Ikerketa bultzatzea

³ Ardatzetako batzuetan ekintza zehatzagoak sartu dira haiek ikasteko ildoari dagokionez.

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
eLankidetzak finantzatutako ikerketak eta azterlanak eta aukera-nitxoak aztertzea. Ondorioen dokumentua	bigarren seihilekoan
Lankidetzaren deszentralizatuari buruzko bigarren txostena	bigarren seihilekoan

10. Komunikazioa

2023ko lehen hiruhilekoan amaituko dugu eLankidetzaren 2019-2022 aldirako I. Komunikazio Planaren barne-ebaluazioa. Horren ondoren, I. Komunikazio Plana bezalako dokumentu operatibo berria zehaztu beharrean, dokumentu estrategiko bat definituko dugu, hurrengo aldian gure komunikazio-ekintzen esparru gisa balioko duena. Plangintza berri horrek lan-ildoak zehatzago definituko baditu ere, jarraian zehaztuko ditugu urtean zehar komunikazioaren arloan garatuko ditugun ekintza nagusiak.

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
2019-2022 aldirako I. Komunikazio Planaren barne-ebaluazioa	lehen hiruhilekoan
Komunikazioaren arloko dokumentu estrategikoa hurrengo aldirako	lehen seihilekoan
eLankidetzaren aurkezteko komunikazio-produktua garatzea	bigarren seihilekoan
Komunikazio digitalerako estrategia definitzea	bigarren seihilekoan
Telebistako eta irratiko programetan agertzea. Hogeita hamabost agerraldi	urtean zehar
Euskal lankidetzaren balioak eta ekintzak zabaltzeko komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpainak. Bost kanpaina	urtean zehar
Lankidetzaren hitzarmena EITBrekin	urtean zehar

11. Plangintza, jarraipena eta ebaluazioa

Urteko plangintza eta aurreko urteko memoria egiteaz gain, 2023an ekintzak egingo ditugu plangintzaren, jarraipenaren eta ebaluazioaren esparruan, bi zentzutan. Alde batetik, etorkizuneko lankidetzarako eta elkartasunerako legearen argitan, lankidetzapolitikaren helburuei buruzko hausnarketa-prozesua egingo dugu –hurrengo V. Gida Planarekin eta lankidetzatresnei buruzko hausnarketarekin ere lotuta–. Eta, bestetik, eLankidetzaren plangintza-dokumentuak eguneratzeko eta barne-ebaluaziorako prozesuak garatuko ditugu.

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
2018-2024 aldirako IV. Gida Plana ebaluatzeko adierazleen matrizea <i>Matrizea sinplifikatzea</i> <i>Jarraipen-mekanismoa</i>	lehen lauhilekoan lehen seihilekoan
Lankidetzapolitikaren helburuei buruzko hausnarketa. <i>Laburpen-dokumentua</i> <i>V. Gida Planaren oinarritzko lerrorako aurrerapausoak</i>	bigarren seihilekoan bigarren seihilekoan
eLankidetzaren plangintzen barne-ebaluazioak <i>2019-2022 aldirako I. Komunikazio Plana</i> <i>2018-2023 aldirako Ekintza Humanitarioko Estrategia</i> <i>2020-2023 aldirako Babeseko Ibilbide-orria</i>	lehen hiruhilekoan hirugarren hiruhilekoan hirugarren hiruhilekoan
eLankidetzaren plangintzak <i>Komunikazioaren arloko dokumentu estrategikoa hurrengo aldirako</i> <i>Ekintza Humanitarioko Estrategia eguneratzea aldi gehigarri baterako</i> <i>Babeseko Ibilbide-orria eguneratzea aldi gehigarri baterako</i>	lehen seihilekoan laugarren hiruhilekoan laugarren hiruhilekoan

12. Bitartekoak

Urtean zehar hainbat arlotan garatuko ditugun ekintza nagusiak sartu ditugu atal honetan: (i) tresnak berrikustea, bereziki proiektuenak, programenak eta pertsonekin lotutakoenak; bai eta finantza-lankidetzarako tresna aztertzea ere; (ii) arauak berrikustea, etorkizuneko lankidetzarako eta elkartasunerako legeari dagokionez; (iii) pertsonen zaintza, prestakuntzaren eta alderdi psikosozialen alorretan, eta (iv) berrikuntza eta hobekuntza administratiboa.

Tresnak berrikustea

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Proiektuen tresna berrikustea, ebaluazio-prozesua eta politikaren helburuen definizioa kontuan hartuta	bigarren seihilekoan
Pertsonen tresnak berrikustea. Ondorioen eta proposamenen dokumentua	lehen seihilekoan
Programen tresna berrikustea. Beste dekretu bat onartzea	bigarren seihilekoan
Finantza-lankidetzarako aukerak eta tresnak aztertzea. Prestakuntza eta eztabaida jardunaldia	otsailean

Araudia berrikustea

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Gobernu Kontseiluan onartzea Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen aurreproiektua, eta, ondoren, Eusko Legebiltzarrerara bidaltzea	urtean zehar

Pertsonak

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Ekintza-plana, lanaren diseinua, antolaketa eta kudeaketa hobetzeko faktore psikosozialak ebaluatu ondoren	lehen seihilekoan
Prestakuntza-plana <i>Beharren diagnostikoa</i> <i>Plana egitea</i>	lehen seihilekoan bigarren seihilekoan

Berrikuntza eta hobekuntza administratiboa

Ekintza nagusiak	Aurreikusitako egutegia
Beharrezko administrazio-dokumentazioa eguneratzea, dirulaguntzak emateko prozedurak herritarrei errazteko eta hurbiltzeko helbuarekin	urtean zehar
Kudeaketa-aplikazioaren etengabeko hobekuntza	urtean zehar

13. Dirulaguntzen kudeaketa

Laguntzei eta dirulaguntzei buruzko informazioa eskuragarri dago Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legean eta eLankidetzaren 2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan.

eLankidetzak 50.725.598 euroko aurrekontua du 2023. urterako, honela banatua:

Pertsonak	2.400.872 €
Funtzionamendua	1.076.000 €
Inbertsioa	0 €
URArek ekarpena AKUAL programarako	304.488 €
Laguntza izendunak	2.849.000 €
Aurreko urteetako konpromisoak	26.512.055 €
EITBri aurreikusitako ekarpena	150.000 €
Deialdi berriak (2023ko ordainketak)	18.433.183 €
Guztira	51.725.598 €

Deialdi berrien lehen ordainketetarako erabilgarri dagoen zenbatekotik abiatuta, eta tresna bakoitza arautzen duen araudian aurreikusitako ordainketa-sistemarekin bat etorritik, 2023an 45,7 milioi izango ditugu, eta 6 deialdiren bidez banatuko dira: – garapenerako lankidetzaren proiektuak (PRO) hiru kapitulutan; ekintza humanitarioko proiektuak (PRE) eta estrategiak (EHE); genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak (GBA), espezializazio-bekak (BEK) eta Ignacio Ellacuría saria (SAR)– eta zuzeneko dirulaguntzak (ZUZ). Tresnen artean funtsak honela banatuko dira:

PRO	34.000.000,00 €
PRE	5.250.000,00 €
EHE	4.000.000,00 €
GBA	433.000,00 €
BEK	80.000,00 €
SAR	15.500,00 €
ZUZ	4.481.516,00 €
Guztira	48.260.016,00 €

Finantzatutako ekimenek lagundu egin behar dute Garapenerako Lankidetzari buruzko 1/2007 Legearen 5. artikuluan ezarritako sektoreko lehenetsuen bat edo batzuk lortzen. Eta, bereziki, lehenetsua emango zaie emakumeak ahalduzkoen alde egiten duten ekimenei (emandako funtsen % 20ko funts-erreserbarekin) edo giza eskubideen defendatzaileak babestearen alde egiten dutenei (% 4ko funts-erreserbarekin). Zehatzago esateko, proiektuen deialdian % 10eko erreserba dago xede-biztanleria emakumeak eta emakumeen elkarteak dituzten proiektuetarako, edo emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunak ezabatzea helburu duten proiektuetarako.

Geografiari dagokionez, garapenerako laguntza ofiziala jaso dezaketen herrialdeak hartuko dira kontuan, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) Garapenerako Laguntza Batzordeak (GLB) ezarritako irizpideen arabera. Eta, zehazki, Afrikan gauzatutako ekimenak lehenetsiko dira, emandako funtsen % 25eko erreserbarekin. Ehuneko hori lortzeko, hainbat kuota eta ekintza positibo ezarri ditugu tresnetan:

- Ekintza humanitariorako deialdiko proiektuen ildoan (PRE), gutxienez 2.625.000,00 euro (zuzkiduraren % 50) gordeko dira Afrikan gauzatzen diren proiektuetarako.
- Ekintza humanitariorako deialdiaren estrategien ildoan (EHE), Afrikan gauzatu beharreko gutxienez 3 estrategia lagunduko dira diruz, haien puntuazioa edozein dela ere, eta, betiere, laguntzak arautzen dituen araudiak eskatutako baldintzak betetzen badituzte.
- Proiektuen deialdian (PRO), deialdiaren funts osoaren % 20 gordeko da Saharaz hegoaldeko Afrikan gauzatutako proiektuetarako, hau da, 6.800.000 euro.
- Zuzeneko dirulaguntzak (ZUZ) emateko erabilgarri dauden funtsetatik gutxienez 2.241.000,00 euro (zuzkiduraren % 50) Afrikan gauzatzen diren proiektuetarako erabiliko dira.

Era berean, eta historikoki euskal lankidetzak laguntza eman dien hainbat herrialderen eta lurralderen egungo egoera dela eta, zuzeneko dirulaguntzen bidez finantzaturako ekimenetan lehentasuna emango zaio demokrazia, giza eskubideak eta justizia trantsizionala indartzeari.

Gainera, eremu humanitarioan, lehentasuna emango diegu gatazka-testuinguruei eta bestelako indarkeria-egoerei, eta emandako funtsen % 9 gordeko dugu horretarako. Horrez gain, larrialdi-egoerei erantzuteko, Nazio Batuen deialdiei edo funts globalei funtsak emateko aukera aztertuko dugu.

Gizartea eraldatzeko hezkuntza-lana bultzatzen ere jarraituko dugu. Emandako funtsen % 13, gutxienez, Euskadin egiten diren ekintzetarako erabiliko da.

Zeharkako ikuspegiak dira eLankidetzak bultzatutako lankidetzaren elementu bereizgarrietako bat. 2023an honako hauek bultzatzen jarraituko dugu: (i) tokiko gaitasunen hobekuntza, xede diren herritarren parte-hartzea eta antolamendua; (ii) genero-ekitatea; (iii) giza eskubideen ikuspegia; (iv) jasangarritasun ekologikoa; eta (v) ikuspegi lokal-globala.

Ekimenak lurraldeko tokiko erakunde bazkideen bitartez gauzatuko dira. Eta, zehazki, tokiko erakunde bazkide feministentzat gordeko dugu emandako funtsen % 10.

[BILKURA HONETAN ONARTZEKO ZAIN] Azkenik, Kontseilu Errektoreak 2023ko apirilaren 3an egindako bilkuran erabaki zuen erakunde eskatzaile bakoitzak funts banagarrien % 7 eskuratu ahal izango duela gehienez, eta argitaratzen den lehenengo deialdian jakinaraziko da zenbateko hori. Bilkura horretan onartu da, gainera, 2023rako laguntzen eta dirulaguntzen deialdiak egiteko irizpide orokorren proposamena eta 2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.